

# Euskadi Irratia



## EUSKAL SINDIKATUA

*langileekin, erantzuteko prest!*

### EUSKADI IRRATIKO HAUTESKUNDE SINDIKALAK

Azken urteetan gure laneko oinarri izan ditugun helburuen arabera jokatu du ELAk:

#### Laneko egonkortasuna

Edozein lan-hitzarmen sinatzerako garaian, plaza berriak sortu eta Lan Eskaintza Publikoak egitea izan da jarri dugun nahitaezko baldintza.

Plantilak zabaltzean aukera berriak eskaintzen dizkie aldi baterako langileei, eta langile finkoei kalitate hobeko lana egiteko modua, kondizio hobeetan baita ere. ELAko kideok adi eta erne egon gara oposizioetako probak zaintzerako garaian, eta baita 2008an erredaktoreen Lan Poltsa osatzeko azterketak egin zirenean ere.

#### Aukera berdintasuna

2003ko Hitzarmenean Lan Poltsak sortu zirenez geroztik, zerrendak arautzeko exijitu du behin eta berriro, eta ildo beretik segiko dugu lanean. Duela bi urte Lan Poltsetarako araudi-zirriborroa aurkeztu genuen, eta zuzendaritzaren erantzunaren zain gaude. Kontratuak laneko merituen arabera egingo direla ziurtatu behar dute Lan Poltsek, bestelako gorabeherak bazter utzita.

#### Eskubide berdintasuna

2003ko Lan Hitzarmenean aldi baterako langileen soldatak finkatu genituen geroztik, langile finkoen eta aldi baterakoen arteko aldea murrizteko lanean segitu du ELAk etengabe.

Garbi daukagu lan berak soldata bera merezi duela. Hala, aldi baterako langileek aintzinasun plusakobra dezaten lortu genuen 2009an.

2008-an, bestetik, ETBko lankideek lanaldiari lotuta aspalditik zeuzkaten plusen erreibindikazioa bultzatu zuen ELAk: asteko konputoa eta malgutasunagatik jasotzen dituztenak, hain zuzen.

Gaueko lanagatik eta Eguberrietan lan egindako jai-egunengatik jasotzen zituztenak berdindu egin ditugu. Igoera horiekin hobeto eraman dezakegu ezarri diguten itxura gabeko soldata murrizketa.

#### Beste hobekuntza batzuk

Administrazioan udan ordutegi jarraituarekin lan egiteko eskubidea lortu dugu.

Famili kontuetarako baimenak hobetu ditugu. Ehuneko 40ra igo dugu Bilbon eta Miramonen jantokirako laguntza.

Gasteiz eta Iruñerako jantoki-txekeak eta bestelako alternatibak defenditu izan ditugu.

#### Profesionaltasunaren defentsa

Azken urteetan hainbat aldiz zenbait alderdi politiko eta komunikabidek auzitan jarri dute EitBko langileen profesionaltasuna. ELA berehala irten da plazara profesionaltasun horren defentsa egiteko. ETak 2008ko Urte Zahar egunean Bilboko egoitzan bonba-autoa jarri zuenean ere erabat gaitzetsi genuen eraso, eta bilkura antolatu genuen.

#### Garai latzak

Garai latzak bizi ditugu langileok. Kapitala nekatu egin da Ongizate Estatuarekin, eta murrizketak ezartzen dizkigu laneko arlo guztietan.

Administrazioek bat egin dute murrizketa horiekin, eta bete-betean harrapatu gaituzte. ELAren ustez, langile guztiok bat egin behar dugu orain arte lortu ditugun eskubide guztien defentsan. Negoziazio kolektiborako eskubidea da oinarrikoena. Alde horretatik, EitBko Zuzendaritzak goitik behera ezarri digun soldata murrizketa PRECOra eraman du ELAk.

Hurrengo hilabeteak erabakigarriak izango dira plantilak Egonkortze ko garaian. Euskara eta euskal kulturaren alde lan egingo duen kalitatezko Irrati Publiko gisa finkatu nahi dugu Euskadi Irratia, eta ez alderdi politikoei hauteskundeak irabazten lagunduko dien tresna gisa.

**Kalitatezko enplegu egonkorra eskaintzen duen kalitatezko Irati Publiko batek baliabideak behar ditu. ELAk irmo aldarrikatuko dute baliabide horiek EitBko Zuzendaritzaren aurrean.**



## ELA, berme osoa.

Gure eskubideak are eta gehiago murriztu nahi dizkigute. Doikuntza bidea erabiltzen dute edota pentsio eta lan erreformarena bederen. Gure lan baldintzak okertzeko ere negoziazio kolektiboa erasotzen dabilta etenik gabe. Langileok, ordea, ondotxo dakigu gure lan eta bizi baldintzak defendatzeko ez dugula atsedunik. Finean, ezinbestekoa zaigu borroka egitea gure eskubideak babesteko.

Hori horrela, ELAn aurre egiten diegu lan harremanetan sortzen den edozein arazori, beti ere gure konpromisoa langile klasearekin delarik. Horregatik, zure enpresako ELAren hautagaioak berme osoa eskaintzen du gure lan baldintzak hobetzeko egin beharreko borrokan. ELAren hautagaiek erakunde sendo eta konprometituaren babesa dute, eta gure eskubideen alde egingo duten militanteen lezinbesteko laguntza eskainiko zaigu. Horixe bera da zure bermerik sendoena. Beraz, ez zalantzarik izan ELAren hautagaioa babesa emateko orduan.

**BOZKATU ELA!**

“Zure lan eta bizi baldintzak duintzeko ELAren hautagaioa duzu bermerik sendoena”.



HAUTAGAIK

Abenduaren 2an hauteskunde sindikalak egingo ditugu Euskadi Irratian, eta lehenengo aldiz bederatzi kideko Lan Batzordea aukeratuko dugu.

ELAren iritziz, enpresan dauden langile-multzo eta lan-egoera desberdinen ispilua izan behar du ordezkaritza sindikalak, eta irizpide horren arabera taxutu behar dira hautagaizerrendak.

Arazoak mahai gainean jarri eta eztabaidatzeko modurik onena, tartean dauden langileak lan-taldeetan buru-belarri sartzea da.

Helburu hori gogoan, hona auteskundeetarako aurkezten dizuegun zerrenda:

## HAUTAGAIK

Jon Aizpurua  
Txus Malo  
Arantxa Arza  
Mikel Gereka  
Manu Etxezortu  
Aitziber Bilbao  
Xanti Gurrutxaga  
Joxe Alkain  
Mariaje Olazábal  
Joselu Aramburu  
Arantxa Garagorri

## Euskadi Irratia

euskadi  
irratia

“Zerrenda honetan zure langile interesak lankidetzan defendatuko dituen ELAren konpromisoa duzu aukeran”

**BOZKATU ELA!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

langileekin,  
erantzuteko prest!

fuerza y  
compromiso

